



Sinplistik Hedoi Etxarte

Norbait aurreneko aldiz ezagutzea gertaera handi eta txiki bat da beti. Ez dakit Hedoi Etxartek argitaratu duen lehen liburua ote den hau, baina nik behintzat irakurri diodan bakarra da. Poesia generokoa da eta islatzen duen poetika, bizitzari buruz helarazten duen ikuspena –edota baita sentimendua ere– berez aski garratza da. Azukre gutxiko sagarrekin eginiko sagardo bat probatzea bezalako esperientzia da. Bizitzari buruzko ikuspen oso sozial eta oso kolektiboa du, intimismoa (nik bereziki hain gogoko dudana) besarkatzen duen beste estilo horren guztiz bestelakoa. Ez dakit esan ote daitekeen poesia militante, konprometituaren esferaren barruan sailkatzekoa den,

Lenin-i eta mundurama komunistaren hainbat eta hainbat ikurri buruz egiten dituen aipamenak ugari-ugariak izanik. Dena den, oihal sozial eta militantean oinarrituriko poesia horren atzean, inguratzen zaionarekin etengabe liskartzen den pertsona bat (egilea) egon ere badagoela uste dut, eta horren jatorria, nire iritziz, ez dago ez arlo sozialean ez arlo militantean, egileak barru-barruan daraman beste zerbaitean baizik; “zerbait” hori, ordea, pisu handikoa da eta, horren ondorioz, egilearen begirada negatiboegi, ezkorregi bilakatzen da, eta azkenik... izugarri garratz. Ozpina hutsa da. Hedoiaren sentimendu poetikoa (eta existentziala) hain da garratza, ezen, azkenean halako arbuio-sentimendu bat sorrarazten baituzu (azken finean, inor ez da upategi batean sartzen entsaladetarako bakarrik balio duen ardo bat probatzeko...). Hala eta guztiz ere, hori norberaren arazoa da. Hau da, Hedoi Etxarte den bezalakoa da eta ni naizen bezalakoa naiz eta zu zaren bezalakoa zara. Alde horretatik, arazorik ez. Nolanahi ere, liburua arin irakurtzen da, astuna ez da egiten, ez da “ahaleginik”-edo egin behar liburua lehenengo orritik azkeneraino irakurtzeko. Iristen zara bukaerara eta pentsatzen duzu: “Bale, irakurri egin dut. Ondo egon da”. Hori bai, lehen poematik azkenekora, lotetsitako sentsazio-arrasto bat uzten du, hau da, poema guztien artean halako dialektika bat, halako lotura bat sortzen du. Dialektika hori, nire kasuan behintzat, apur bat gatazkatsua da; Hedoi Etxarterekin, nolabait esateko, defentsiban jarri naiz, badaezpada ere... Darion tonu garratzegiaz gain, han-hemen badaude beste zenbait detaile. Esaterako, 52. orrialdean (nire Wolder irakurgailuaren arabera) Lenin-i buruz egiten duen aipamena aski esanguratsua da:

“Prensa aske bat sortu nahi dugu –eta sortuko dugu–; askea ez soilik zentzu poliziakoan, baita arribismoetatik eta, are, indibidualismo anarkiko burgesetik askea ere.

Lenin”.

Bueno, Lenin-ek eta bere ondorengoek sistema poliziako nazkagarri, izugarri eta krudel bat jarri zuten martxan. Beraz, ez dakit zehatz-mehatz Hedoi horrekin zer esan nahi duen. Gainera, zergatik da txarra indibidualismoa? Inurritegiko espirituarekin bizi behar ote dugu? Asiako herrialdeetan espiritu horren adibide asko topatzen ditugu. Esaterako, Ipar Korearen kasuan. Ikusi al zenuten herri oso batek zelako negarrak egiten zituen bere buruzagi “karismatikoaren” galeragatik? Bizi artean, bere herria gosez hiltzen utzi zuen puta-seme garbi bat baino ez zen izan, misil nuklearrak baino askoz gehiagorik

oinordetzan utzi ez diena. Baina, ai ama maitea! nolako dolua kaleetan! zelako tragedia nazionala! (Hiletara joan ez zirenei txakurrak etxera bila joaten zitzaizkien gero, “azalpenak” baino zerbait gehiago eskatzera; baten batek erbestera jo behar izan zuen, “badaezpada ere, putaseme zenduaren semeak “mendekoaren insolentzia” ez ote zuen gaizkiegi hartuko edo...). Hori ez al da izango eredu burges indibidualistari kontrajarritako eredu, ezta? Eta, berariaz, zer da burges bat? Lizeoko irakasle bat burges bat ote da? Eta igeltsero bat, urrezko adreiluen aroan, zer zen? arratoi hiperburges eta anti-natural bat? Eta, berariaz, zer ikasi du Hedoi? Non egiten du lan? Zer karrera ikasi zuen? Eta hala egin bazuen, zein asmorekin? Jarraian Mitxelín-era lan egitera joateko...?

Ez dakit, batzuetan Rock Super Erradikalaren garaiko taldeak etortzen zaizkit burura, euren abestietan oso gauza salagarriak salatzen zituztenak (oihuka beti, abestuz baino gehiago), eta horraino oso ondo. Arazoa da geroago ikusten duzula talde horietako kideek, askotan, euren bizitza pribatuan (eta publikoan) egiten duten gauza bakarra dela drogak eta alkohola edaten ipurdiraino jartzea, eta azkenean, egiten duten gauza bakarra da gauza guztien aurka sistematikoki jartzea eta den-den-den-dena salatzea (eurek daramaten bizimodu ziztrina izan ezik, noski). Niretzat, hori pose bat baino ez da, pose indibidual eta kolektibo bat, eta horren atzean normalean burges indibidualista, txiki bat ezkutatu ohi da, edo ez burges ez ezer: txo berekoi, egozentriko bat, sarri-askotan hark berak uste duen baino erreakzionarioago eta kontserbadoreago izan ohi dena.

Esan berri dudana digresio bat baino ez da, eta berez ez du –halabeharrez– zerikusirik Hedoi Etxarterekin. Zera baino ez dut esaten: haren liburua irakurri eta gero ez dudala zehatz-mehatz jakitea lortu Hedoi Etxarte nor den. Hori bai, bere ikuspegi sozial-iraultzaile-militante-komunista zein den kontatu dit. Osea, bere posea zein den kontatu dit, baina ez dit esan benetan nor den. Beharbada (oraindik) ez daki, eta hori ez litzateke bekatua izango (nork daki hainbeste...?).

Poesia liburu bat irakurtzen dugunean, ez da ipuin- edo narrazio-liburu bat irakurtzen dugunean bezala. Ezin duzu liburu horri buruz hitz egin nobela bat balitz bezala bere garapenarekin, bere argudioarekin, bere pertsonaiekin, bere batasunarekin, e.a. Poesia-liburu bati buruz edo ipuin-liburu bati buruz hitz egin behar baldin baduzu, poesia/ipuin bakoitzari heldu beharko diozu eta, zenbat eta gehiago disezcionatu, zenbat eta gehiago mikroskopiora gerturatu, hobeto ulertuko duzu (edo, akaso, gutxiago ulertuko duzu). Ziur aski, poesia-liburu bati buruz hitz egiteko orduan, hori egin beharko litzateke beti, hau da, poema bakoitzean gelditu beharko genuke eta poema bakoitzaren ustezko bertuteak edota akatsak bilatu (edota iradokitzen dizunari buruz/ez dizunari buruz gogoeta egin). Baina horrek denbora eskatzen du, eta ez dut egingo, noski. Baina aurreneko hamar poemak-edo arretaz irakurtzen saiatuko naiz, eta horrela, liburu honen gainean argitasun apur bat bota (argitasuna niretzat, ez beste inorentzat).

Zenbaitetan euskara errazegia ez ote zerabilen sumatu dut, ez dakit, “subjektua + predikatua + aditza” ohiko parametroari erantzuten dioten esaldiak alegia. Beste batzuetan (oso gutxitan) esaldiren bat birritan irakurri behar izan dut zentzu linguistiko bat antzematea lortu gabe, eta ez naiz ari poesiak batzuetan hartu ohi duen zentzu abstraktu edo surrealista horretaz (eta liburu hau, alde horretatik ere, ez da salbuespena).

Ikus ditzagun poema batzuk:

“Ezta hazia ereiteko ere”.- Poema honi darion ironia liburu osoari darion berbera da. Ironia hori zeri aplikatzen dion zehatz-mehatz ez dakit, ordea, eta hor dago koska. Aita bananduen egoera salatzen ari da...? Hura bera ote da aita banandu horietako bat? edo, genero-elkartasunezko bultzada bati jarraiki egiten du...? Poeman gauza gehiegi nahasten dira, ez dago ezer garbi... Gainera, ez nago ziur baina... emakume bat Hedoi Etxarteren poema bateko protagonista bilakatzen denean, mota guztietako konnotazio negatiboak hartu ohi ditu. Eta, bueno, bai, badakit to pepelerdoak daudela, txo pepelerdoak dauden bezalaxe, baina ez dakit, emakumearen munduarekin zerikusia duen zerbait Hedoi Etxartek digeritu ezinean ote daukan susmoa dut. **“Hosto hilak jasotzen”** poeman, aldiz, ez da horrela gertatzen, eta hori baliteke horrela izatea poema horretako emakumea poliziaren biktima bat delako (gainerakoak, poliziaren biktima izan ez direnak, Hedoiaren poemarioan oso onik ateratzen ez direla uste dut). Eta hori bera gertatzen da **“Maite dudan emakumea”** poeman, non agerian jartzen baita Hedoi emakume-prototipo jakin batekiko dituen mesfidantza eta iritzi eskasa (kontua da: prototipo jakin baten aurkako jarrera da –eta hor bat egiten dut Hedoiaren jarrerarekin– ala beste zerbait ote da?). **“Fidel naiz”** poeman dena da absurdua, poemari nondik heldu ez dago, esaterako: “Hitzak etzanda nekazariak zaizkit / eta nahiago ditut zutik / besteen gisara malabararik gabe”. Bueno, eta...? Efektu hau hamaika aldiz errepikatzen da liburu osoan. **“Pentsamendu Ahulari jarria”** poeman, egilearen jarrera hantustetsu bat nabarmentzen da (jarrera hori etengabe agertzen da liburuan eta litekeena da egilearen gaztetasuna islatzea –denok ibili gara nahiko puztuta geure gaztaroan–). Badirudi Hedoi mundu guztiari irakatsi behar diola nola izan behar dugun sozialki, ideologikoki eta politikoki hitz eginez; edo, beste batzuetan, rock erradikal estiloko abeslariak ekartzen dizkit gogora, bere lelo apur bat monotono eta oihulariaz. Alde horretatik, apur bat estereotipatuta kausitzen dut. Baina, bueno... **“Atzerrian hedadura”** poema apur bat bitxia eta misterioitsua da, bere ohiko ukitu garratz eta (a)sozial eta pittin bat misoginoarekin. “Sinplistik”en poesia ondo islatzen du. Badu bere xarma (liburu osoak badu). **“Terroristak suizidak ginen biok...”** kasuan, poema hau ulertzen saiatzen ari nintzen, noiz eta ustekabean burura etorri zait zera, Hedoi Etxartek baduela bere konplexutasun- eta bere sofistikazio-puntua, ez dela alde horretatik sinplista horietako bat, inolaz ere ez, nahiz eta munduaren azalpena (azalpen soziala) sinplifikatzeko joera izan, daukan ikuspenaren eta egiten dituen interpretazioen arabera, niretzako sinplista samarrak diren –sozio-politikoki hitz eginez– parametro batzuen arabera beti. **“Ni neu naiz nire aukera kaskarrena”** poeman ia-ia ulertezintasuna harramazkatzen duten esaldi (bakan) horietako bat agertzen da: “Ni neu / erabat ez sendatzeaz arduratzen den botika / zauriak mantentzeko ukendu / zoramena kroniko egiten duen terapia.” Poema hau nahiko misterioitsua da. Keinu ezkor askotxo ditu (liburuan ohikoak diren bezala), eta etsipena islatzen du (etsipen tragiko, bizi, eder eta erromantiko bat...).

Eta hemen uzten dut. Ez dut liburua komentatzen jarraituko zeren, bestela, beste liburu bat idazten bukatuko dut. Hedoi Etxarteren poesia ulertzen saiatu naiz, baina ulertzen batez ere niretzat, ez zuentzat. Liburua ulertu nahi baduzue, irakurri egin beharko duzue eta zeuen ondorioak atera (ez da derrigorrezkoa ondorioak ateratzea; zenbaitetan, nahikoa izaten da gauzak irakurtzearekin, eta kito...), eta bakoitzak bila dezala liburuarekiko bere interakzioa, norberaren ikuspegitik.

Liburua Susa-ren web gunetik jaitsi nuen eta eskerrak ematen dizkiot hargatik bai egileari bere liburuagatik –merezki baitu ezagutzea– bai Susakoei ere, denon eskura

jartzeagatik liburuz betetako fardel bikain hau, PDF formatuan eta ePub formatuan, eta prezio ezin hobean. Bazen garaia!